

Bizkarroiei gogor eragingo die klima-aldaketak

Bizkarroiek ospe txarra duten arren, haien dibertsitatea ekosistemen osasunarekin lotuta dago. Hala eta guztiz ere, klima-aldaketak bizidunetan izango dituen ondorioak kalkulatzeko, bazter utzi izan dira. Orain, ordea, haietan jarri dute arreta, eta ohartarazi dute 2070rako bizkarroien heren bat galtzeko arriskua dagoela.


Kaliforniako Unibertsitateko Wayne Getzen Laborategian egin dute ikerketa hori, eta [Science Advances aldizkarian argitaratutako dituzte emaitzak](#). Azaldu dutenez, aurreikuspenak egiteko, museoetako bizkarroien bilduma historikoak (200 milioi bizkarroi baino gehiago) eta orain jasotako datuak erabili dituzte, eta klima-aldaketak 457 bizkarroi-espezieri nola eragingo liekeen aztertu dute. Aurreikuspen txarrenen arabera, heren bat galtzeko arriskua lego; baikorrenen arabera, berriz, % 10.

Edonola ere, galerak ekosistemetan eragin handia izango lukeela adierazi dute. Horrenbestez, klima-aldaketaren ondorioak aztertzean, espezie jakinetan arreta jarri beharrez, ekosistema osoak aintzat hartzea proposatu dute, benetako egoera hobeto aurreikusiko dutelakoan. ●



Sminthonian Institutuan gordetako bizkarroi-bildumaren lagin bat. ARG.: Paul Fetters/Smithsonian Institutua.

Antares izarraren azala eta atmosfera, iruditan



Antaresko materialen mugimenduen abiadura erakusten duen mapa. ARG.: ESO/K. Ohnaka.

Eguzkia ez den izar baten irudirik onena lortu dute, ESO behatokiko VLT teleskopioaren interferometroa erabilia (VLTi). Antares da izar hori, bere bizitzaren amaieran dagoen super-erraldoi gorri bat, eta, haren azalaren irudi osatua ez ezik, atmosferako materialen abiaduraren mapa ere egin dute. [Nature aldizkarian](#) eta [ESOren webgunean argitaratu dituzte emaitzak](#).

VLTi-k lau teleskopioen argia konbina dezake; horrela, teleskopio birtual bat sortzen du, 200 metroko ispilu baten parekoa. Astronomoek ez zekiten nola galtzen duten bizitzaren amaieran dauden izarrek hain azkar beren masa. Orain, VLTi-a erabilia, atmosferako gasen eta izar osoaren batezbesteko abiaduren diferentzia kalkulatu dute, Antares osoan. Emaitza: Antaresko atmosferako gasen abiadura erlatiboaren mapa, Eguzkia ez den izar baten lehena. "Izarrak behatzeko leiho berri bat ireki du", esan du Keiichi Ohnaka ikerketaburuak. ●



Eduki gehiago
webgunean